



EBALUAZIO-ERRUBRIKA

PROIEKTUAK.EUS – ZELULA GO!

Joko-etaulak diseinatu (koordinatuak eta eskala)



IRIZPIDEA (TALDE-LANETAN)	4-BIKAINA	3-AURRERATUA	2-EGOKIA	1-HASIERAKOA
1.2 · Koordinatuen taula (A atala)	Atal guztien koordinatuak idatzita daude, koadrikularen barruan, hitzarmena betez eta atalak gainjarri gabe.	Atal guztien koordinatuak idatzita daude eta hitzarmena betetzen dute.	Koordinatu batzuk falta dira, koadrikulatik kanpo daude edo ez dute hitzarmena betetzen.	Ez dituzte koordinatuak idazten.
2.1 · Marrazkiak alderatzea (A atala)	Marrazkiak alderatu dituzte eta desberdintasunak non sortu diren zehaztu dute.	Marrazkiak alderatu dituzte eta berdinak diren ala ez erantzun dute.	Alderatzen dute, baina ez dute erantzuten non dagoen arazoa.	Ez dituzte marrazkiak alderatzen.
6.2 · Zelula moten arteko aldeak (A atala)	Bi galderei erantzuten diete eta atalak zuzen zerrendatzen dituzte (landarea/prokariotoa eta animalia/landarea).	Bi galderei erantzuten diete; zerrendan akatsen bat dago.	Galdera bati bakarrik erantzuten diote.	Ez dute galderarik erantzuten.
7.1 · Beste zelularen taula marraztea (A atala)	Marraztutako taula jasotako koordinatu guztiekin bat dator.	Marraztutako taula koordinatu gehienekin bat dator.	Marrazten dute, baina koordinatu batzuk ez dituzte errespetatzen.	Ez dute taula marrazten.
1.4 · Eskala eta azalera kalkulatzeko (B atala)	Hiru kalkuluak zuzen daude, azken galderaren emaitza barne.	Bi kalkulu zuzen daude.	Kalkulu bat zuzen dago.	Ez dute kalkulurik egiten, edo denak oker daude.
8.1 · Emaitzak idatziz azaltzea (A eta B atalak)	Emaitza guztiak unitateekin idatzita daude eta jarraitutako prozedura azaltzen dute.	Emaitzak unitateekin idatzita daude.	Emaitzak idatzita daude, baina unitaterik gabe.	Ez dituzte emaitzak idazten.

IRIZPIDEA (BANAKAKO LANETAN)	4-BIKAINA	3-AURRERATUA	2-EGOKIA	1-HASIERAKOA
9.2 · Zuzenketa onartzea eta hobetzea	Akatsa aukera gisa erabiltzen du eta hobekuntza proposatzen du.	Akatsak onartu eta zuzendu egiten ditu.	Zuzenketa onartzen du, baina ez du fitxa hobetzen.	Ez du akatsik onartzen.
10.2 · Bikoteko zeregina betetzea	Bere zeregina bete du eta bikotekideari lagundu dio.	Bere zeregina bete du: diseinatu, koordinatuak idatzi eta beste taula marraztu.	Zeregina partzialki bete du edo gogorazi behar izan zaio.	Ez du bere zeregina egin.
10.1 · Elkarlana eta entzute aktiboa	Elkarriketa dinamizatzen du: galde-tu, laburtu eta denek ekarpenak baten ditu.	Parte hartzen du eta besteek entzuten die.	Parte hartzen du, baina besteek gaitetik hitz eginez.	Ez du parte hartzen, edo ez du besteek entzuten.

Ebaluazio-irizpideak (Matematika, DBH 1-2)

Errubrikako kode bakoitza euskal curriculumeko irizpide bati dagokio:

1.2	Ikaste-egoerak eta problemak ebazteko estrategiak bilatzen lagunduko duten irudikapen matematikoak egitea (marrazkiak, taulak, eskemak, diagramak eta adierazpen sinboliko erraz batzuk...).
1.4	Problema baten soluzio matematiko arrazoitu posibleak lortzea, ezagutzak eta behar diren tresna teknologikoak mobilizatuz.
2.1	Problema baten soluzioen zuzentasun matematikoa egiaztatzea, ebazteko beste estrategia posible batzuk analizatuz.
6.2	Matematikaren eta beste jakintzagai batzuen arteko lotura logikoak identifikatzea, zenbait esparrutako ezagutzak integratuz eta testuinguruan kokatutako problemak ebatziz.
7.1	Oinarrizko kontzeptuak, prozedurak eta emaitzak hitzeko tresnen, tresna grafikoen edo sinbolikoen bidez irudikatzea, ideiak bistaratzeko eta prozesu matematikoak egituratzeko, komunikazioa eta informazio-transferentzia aberasteko duten erabilgarritasuna baloratuz.
8.1	Informazioa komunikatzea, hizkuntza matematiko egokia erabiliz (ahoz eta idatziz) eta arrazoibideak, prozedurak eta ondorioak argi eta garbi eta ordenatuta deskribatuz eta azalduz.
9.2	Motibazio positiboa eta jarraitutasuna erakustea, kritika arrazoitua onartuz matematika ikasteko egoerei aurre egitean.
10.1	Talde heterogeneoetako lanean aktiboki kolaboratzea eta harremanak ezartzea, eraginkortasunez komunikatuz, erabakiak hartuz eta iritzi informatuak emanez, eta edozein aurreiritzi edo diskriminazio desagerraraziz.
10.2	Taldean garatu behar diren zereginen banaketan parte hartzea, inongo diskriminaziorik gabeko inklusioaren eta entzute aktiboaren alde eginez, esleitutako rola bere gain hartuz eta norberak taldeari egiten dion ekarpenaz arduratuz.